

[ACTUALIDAD](#) / [HERRI UNIBERTSITATEA](#)

# Ehunka ikaslek hartu dute parte aurtengo Herri

**GEDAR**

300 lagun inguru bildu ditu urteroko ekimenak Gasteizko campusean, oztopoak oztopo. Bertaratu direnek hamaika gai jorratu dituzte astearte goizetik asteazken eguerdira bitartean. Pentsamendu iraultzailearen historia, eskola eta pedagogia nahiz genero auzia landu dituzte aurtengo edizioan, eta hainbat antolakunderen mahai-inguruak ere izan dira.

**Argazkia:** Herri Unibertsitatea

2021/03/18 10:39

Unibertsitateetako ikasle mugimenduak amaiera eman dio Herri Unibertsitate nazionalaren [aurtengo edizioari](#). Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) jarritako oztopoen gainetik, egitasmoak 300 bat ikasle batu ditu Gasteizko (Araba) campusean, hamaika gairen inguruan hausnartzeko helburuarekin.

Hezkuntza eta Kirol Fakultatean, Farmazia Fakultatean, Letren Fakultatean, Elurretan eta Hegoalde Gizarte Etxean izan dira Herri Unibertsitateko saioak bi egunetan zehar; solasaldiak, mahai-inguruak, arte erakusketa bat eta Ekidaren ikuskizuna tarteko.

## Martxoaren 16a

Ikasleak asteazken goizean bertaratu ziren urtez urte hazten ari diren jardunaldiaren parte hartzen. 10:30ean ekin zioten egitarauko lehen blokeari, aurrez aurreko bi saioekin: **Ekida kultur ekimen sozialistaren aurkezpena** eta **Café Marx** kolektiboaren solasaldia, posmodernitatearen hurrenkera filosofikoari buruz. **Francisco Erice Sebarezek** eta **Miren Etxezarretak**, aldiz, telematikoki eskaini zituzten Friedrich Engelsen ekarpen teorikoaren eta kapitalismoaren egungo joeren inguruko hitzaldiak, hurrenez hurren.

Goizeko bigarren atalari dagokionez, ekonomia politikoaren kritikaren inguruko bi gai landu ziren, **Juan Iñigo Carreraren** eta **Roberto Escorciaren** esku: Carrerak kapital harremana eta langile klasea subjektu iraultzaile gisa aztertu zituen batetik, eta Karl Marxen metodo dialektikoaren inguruko eztabaida elikatu zuen Escorciak, bestetik. Streaming bidez gauzatutako bi solasaldi horiez gain, **Gorka Torrek** klaserik gabeko gizartearen hezkuntzak izan behar lukeen formaren inguruan hausnartzera bultzatu zituen ikasleak.

Aurreneko saioak burututa, Gasteizko campuseko errektoreordetzaren aurrean elkarretaratu ziren ehunka pertsona, *Herri Unibertsitatearen aurkako erasorik ez!* lemapean. Hala, EHUn Herri Unibertsitatea egiteko jarritako traba guztiak salatu zituzten. "Ez dugu ikasle mugimenduaren eta antolakuntza propioaren aurkako jarrera autoritarioi onartuko", berretsi zuten ikasleek aho batez.

Astearte arratsaldean beste lau saio izan ziren. **Itaiak** hainbat ekarpen politiko egin zituen genero auziaren inguruan, **Carmen Parejok** Myanmarreko estatu kolpearen xehetasunak azaldu zituen, **Aitor Bizkarrak** euskararen eta klase sozialen arteko harremanaren inguruko gerturapen analitiko bat aurkeztu zuen, eta **Alberto Riescok**, berriz, soldatapeko lanaren mugen eta enplegu forma berrien inguruko ikuspegia eguneratua izan zuen hizketagai.





Egunari amaiera emateko, ikasleek **Manifestua** izeneko ikuskizunaz gozatu zuten Hegoaldeko Gizarte Etxean, **Ekidaren** esku.

## Martxoaren 17a

Asteazkeneko lehen blokean beste hiru saio egin ziren, 10:30ean hasita. **Mario del Rosalek** erreformismo sozialdemokrataren ibilbidea izan zuen aztergai, oinarrietatik hasi eta forma garaikideetaraino. **Imanol Satrustegik** 70eko hamarkadako ezker erradikalaren inguruan osatutako tesiak aurkeztu zuen ikasleen aurrean, haustura iraultzailerako proposamena zeramaten antolakunde zein alderdiak gogora ekarriz. Hirugarrenik, **Mugimendu Sozialistako bi kidek** Alderdi Komunistaren eraikuntzaren inguruko hipotesiak eta ardatz estrategikoak azaldu zituzten solasaldi formatuan.

Aurreko saioa amaitu eta berehala, ikasleek JFKZko areto nagusian geratzea erabaki zuten, dekanotzaren mehatxuei aurre eginez. Izan ere, EHUn 30 pertsonako edukiera zuten bi gela baino ez zizkien eskaintzen Farmazia Fakultatean egitekoa zen gazte antolakundeen mahai-ingururako. Herri Unibertsitateko antolatzaleen esanetan, han "ezin daitezke ehunka pertsona elkartu dituzten jardunaldiak egin".


Iragan asteko salaketa publikoa ohartarazi zuten bezala, ekimena "ahalik eta baldintza onenetan egitearen alde" lerratu dira ikasleak, eta halaxe gauzatu ahal izan zuten egitarauaren azkeneko zatia. **Gazte Koordinadora Sozialista, Arran eta Castella** aritu ziren azken blokeko bi saioetako batean, gazte antolakundeen izaeraren eta ekarpen iraultzaileraren inguruan. Bien bitartean, **Ikasle Abertzaleak eta Herrialde Katalanetako SEPC** ikasle sindikatua Farmaziako Fakultateko gela batean elkartu ziren, ikasle mugimenduaren berehalako erronkez eztabaidatzeko.






## NO HAY COMENTARIOS

## MÁS



REPRESIÓN

**La represión en el ámbito educativo: crónica de los últimos años**



¡PAREMOS LA ELITIZACIÓN DE LA UNIVERSIDAD!

**El asalto del capital privado a la universidad pública**



## EDUCACIÓN

**La educación pública como instrumento estatal de proletarización**

## HERRI UNIBERTSITATEA

**Herri Unibertsitatea, palanca del proceso revolucionario**

Nadia Perez



## 28E MOVILÍZATE

**"Las manifestaciones del 28 de enero muestran cómo una tendencia política se está expandiendo y estabilizando entre la juventud trabajadora"**

# Arteka hilero jaso web-orrian harpidetuz

#40 / 2023 EKAINA



## Direcciones

### Contacto

harremanak@gedar.eus

### Redacción

erredakzioa@gedar.eus

### Colaboraciones

kolaborazioak@gedar.eus

### Suscripciones

harpidetzak@gedar.eus

## Redes

TWITTER

INSTAGRAM

TIKTOK

FACEBOOK

YOUTUBE

## Aviso legal

CC BY SA

Cookies

Información legal

Buscar